



Aurrera Begira

2025

Gazteen aurreikuspenei
buruzko adierazleak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA
DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO



Haur, Nerabe eta Gazteen
Euskal Behatokia

Observatorio Vasco de
la Infancia, Adolescencia
y Juventud

Aurrera Begira 2025

Gazteen aurreikuspenei buruzko adierazleak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA

DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO



Haur, Nerabe eta Gazteen
Euskal Behatokia

Observatorio Vasco de
la Infancia, Adolescencia
y Juventud

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2026

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoa aurki daiteke: <https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua>

Argitaraldia: 1.a, 2026ko apirila

Ale-kopurua: 5 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Ongizatea, Gazteria eta Erronka Demografikoaren saila

Internet: www.euskadi.eus

Argitaratzailea:

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea:

Haur, Nerabe eta Gazteen Euskal Behatokia

Diseinua eta maketazioa:

Haur, Nerabe eta Gazteen Euskal Behatokia

Azala:

D.^a Casilda Komunikazio Agentzia

Inprimatzea:

Eusko Jaurlaritzaren Inprenta eta Erreprografia Zerbitzua

ISSN: 2792-7067

Oharra: Argitalpen honen gaztelaniako bertsioa ere eskuragarri dago



Dokumentu honen edukiak, oraingo edizioan, Creative Commons-en lizentzia honetan argitaratu dira: Aitortu – Ez merkataritzarako – Lan eratorririk gabe 4.0 Unported (informazio gehiago: <https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/deed.eu>)

AURKIBIDEA

SARRERA.....	4
METODOLOGIA.....	5
1. EGOERAREN BALORAZIO INDIZEA.....	6
2. NORBERAREN ONGIZATE INDIZEA.....	7
3. BIZITZAREN ALDERDIEN BALANTZEA	8
4. LANA GALTZEKO EDO BALDINTZAK OKERTZEKO ARRISKUA.....	9
5. LANA AURKITZEA AURREIKUSTEA.....	10
6. PRESTAKUNTZARI LOTUTAKO LANA IZATEA AURREIKUSTEA.....	11
7. DERRIGORREZ EMIGRATU BEHARRA AURREIKUSTEA.....	12
8. EMANTZIPAZIOA ZAPUZTUKO DELA AURREIKUSTEA.....	13
9. AMATASUN ETA AITATASUN ATZERATUAREN INDIZEA.....	14
10. ETORKIZUNAREKIKO KONFIANTZA INDIZEA	15
EMAITZEN IRAKURKETA.....	16
ONDORIOAK	20
I. ERANSKINA: NOLA KALKULATZEN DIREN ADIERAZLEAK	21
II. ERANSKINA: ADIERAZLEEN BILAKAERA.....	25
III. ERANSKINA: ADIERAZLEAK ERATZEKO OINARRIZKO DATUAK	26
IV. ERANSKINA: ADIERAZLEAK ERATZEKO OINARRIZKO DATUEN BILAKAERA.....	32

SARRERA

Euskal gazteek gaur egungo errealitatea nola hautematen duten eta epe laburrera dituzten aurreikuspenak ezagutzeko asmoz Haur, Nerabe eta Gazteen Euskal Behatokiak urtero burutzen duen ikerketa da Aurrera Begira. Hamahiru urteko edizio jarraituaren ondoren, Aurrera Begirak euskal gazteen egoera ebaluatzeko eta jarraipena egiteko tresna argia eta sintetikoa eskaintzen segitzen du. Horretarako funtsezko hamar adierazletan oinarritzen da.


Gazteen lehentasunen bilakaera eta beren bizi-proiektuak garatzeko dituzten zailtasunak ulertzeak, erabakiak hartzeko bide informatuagoa ematen die gazteriaren arloan erantzukizun politikoak eta teknikoak betetzen dituztenei.

METODOLOGIA

IKERKETA TEKNIKA	Inkesta mistoa, telefono bidezkoa eta online bidezkoa, galdera gehienetan galdera-sorta egituratua eta itxia duena
UNIBERTSOA	Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteak
INKESTA KOPURUA	2.727 (544 Araban bizi dira, 1.328 Bizkaian, 846 Gipuzkoan eta 139 Euskaditik kanpo)
LAGIN AKATSA	\pm % 1,9 (% 95eko konfiantza-maila eta $p=q=0,5$)
LANDA LANAREN EPEA	2025ko abenduaren 2tik 26ra
IKERKETAREN DISEINUA, EMAITZEN ANALISIA ETA TXOSTENA BURUTZEA	Haur, Nerabe eta Gazteen Euskal Behatokia
LANDA LANAREN ENPRESA ARDURADUNA	INGARTEK Consulting S.L.

1. EGOERAREN BALORAZIO INDIZEA


Norberaren egoera pertsonalari, gazteen egoera orokorrari eta Euskadiren egoerari emandako balorazioen batez besteko puntuazioa, 0tik 100era doan eskalan.



EGOERAREN BALORAZIO INDIZEA								
Guztira	Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
65	66	64	68	64	62	65	65	65

2. NORBERAREN ONGIZATE INDIZEA

Norberaren egoerari buruzko hainbat arlo aintzat hartuta (lan egoera edo lanarekiko aurreikuspenak, ikasketak edo prestakuntza maila, familia, astialdia, lagunak, harreman sentimentalak edota sexualak, osasun fisiko eta mentala, itxura fisikoa, hilean duten dirua eta familiarekin edo beren kontura biziitzea, norberaren kasua kontuan izanda), bakoitzarekiko poztasunari emandako balorazioen batez besteko puntuazioa, 0tik 100era doan eskalan.



NORBERAREN ONGIZATE INDIZEA								
Guztira	Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
73	73	74	75	73	73	75	73	73

3. BIZITZAREN ALDERDIEN BALANTZEA


Bizitzaren alderdien balantzeak gazteek beren bizitzako hamar alderdiri ematen dieten garrantzia eta haiekin lortzen duten gogobetetasuna alderatzen ditu, bi kasuetan 0-100 eskala erabiliz. Kontuan hartutako hamaika alderdiak hauek dira: lan egoera edo lanarekiko aurreikuspenak, ikasketak edo prestakuntza maila, familia, astialdia, lagunak, harreman sentimentalak edota sexualak, osasun fisikoa, osasun mentala, itxura fisikoa, hilean duten dirua eta familiarekin edo beren kontura bizitzea, norberaren kasua kontuan izanda. Gogobetetasunaren eta garrantziaren arteko kenketak zehazten du arlo bakoitzean gazteek egindako balantzea.

	GOGOBEETASUNA	GARRANTZIA	BALANTZEA
Dirua	64	83	-19
Osasun mentala	74	89	-15
Osasun fisikoa	76	87	-11
Astialdia	71	82	-11
Lana edo lan-aurreikuspenak	68	79	-11
Harreman sentimentalak edota sexualak	66	73	-7
Lagunak	79	84	-5
Ikasketak	79	84	-5
Familia	84	89	-5
Itxura fisikoa	71	71	0
Norberaren kontura edo familiarekin bizi izatea	76	73	3

BIZITZAREN ALDERDIEN BALANTZEA									
(GOGOBEETASUNA - GARRANTZIA)	GUZTIRA	SEXUA		ADIN TALDEAK			LURRALDE HISTORIKOA		
		Emakumea	Gizona	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Dirua	-19	-21	-17	-11	-23	-22	-14	-20	-18
Osasun mentala	-15	-18	-12	-11	-16	-18	-13	-16	-14
Osasun fisikoa	-11	-12	-9	-7	-12	-15	-10	-11	-10
Astialdia	-11	-12	-11	-9	-12	-16	-11	-13	-10
Lana	-11	-12	-9	-2	-13	-17	-9	-12	-10
Harreman sentimentalak edota sexualak	-7	-6	-9	-9	-7	-6	-7	-7	-7
Lagunak	-5	-6	-5	-4	-6	-7	-6	-5	-5
Ikasketak	-5	-5	-4	-9	-5	0	-4	-5	-4
Familia	-5	-5	-4	-2	-5	-6	-5	-5	-4
Itxura fisikoa	0	-4	3	-2	-1	2	0	0	0
Norberaren kontura edo familiarekin bizi izatea	3	2	3	22	0	-14	7	2	1

4. LANA GALTZEKO EDO BALDINTZAK OKERTZEKO ARRISKUA

Urtebetean enplegua galtzea edo beren lan-egoera okertzea oso edo aski litekeena delako ustea duten langile gazteen ehunekoa. Adierazlea kalkulatzeko, gazte landunen artean kontuan hartzen dira, alde batetik, zenbatek uste duten litekeena dela beren enplegua galtzea, eta, bestetik, lana galtzeko arriskurik aurreikusten ez duten arren, zenbatek uste duten litekeena dela dauzkaten lan-baldintzak okertzea.




LANA GALTZEKO EDO BALDINTZAK OKERTZEKO ARRISKUA									
	Guztira	Emakum.	Gizonak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Lana galtzeko arriskua	26	29	22	*	28	25	28	27	24
Baldintzak okertzeko arriskua	15	16	14	*	16	15	12	15	17
ARRISKUA GUZTIRA (galtzea + okertzea)	41	45	36	*	44	40	40	42	41

* 15-19 urteko adin-taldean ez dago estatistikoki esanguratsuak diren datuak emateko adina gazte lanean.

5. LANA AURKITZEA AURREIKUSTEA


Urtebeteko epean enplegua aurkitzea espero duten langabe gazteen ehunekoa.



* Datu hauek kontu handiz hartu behar dira, inkestan langabezia duen gazte kopurua txikia izan baita. Arrazoi beragatik, guztizko datua soilik eskaintzen da, desagregaziorik gabe.

6. PRESTAKUNTZARI LOTUTAKO LANA IZATEA AURREIKUSTEA


Ikasketak bukatutakoan, prestakuntzari lotutako enplegua aurkitzea espero duten ikasleen ehunekoa.



PRESTAKUNTZARI LOTUTAKO LANA IZATEA AURREIKUSTEA								
Guztira	Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
82	82	83	83	82	76	81	81	85

7. DERRIGORREZ EMIGRATU BEHARRA AURREIKUSTEA


Etorkizunean, joan nahi ez badute ere, atzerrira lan egitera emigratu beharko dutela uste duten gazteen ehunekoa.



DERRIGORREZ EMIGRATU BEHARRA AURREIKUSTEA								
Guztira	Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
9	7	10	6	11	10	8	9	9

8. EMANTZIPAZIOA ZAPUZTUKO DELA AURREIKUSTEA


Emantzipazio-proiektuak urtebeteko epean gauzatzetik izango ez dutela uste duten gazteen ehunekoa, gurasoen etxetik atera nahi izan arren horretarako aukerarik ikusten ez dutelako, edo, bestela, emantzipatuta egon arren gogoz kontra gurasoen etxera itzuli beharko dutela uste dutelako.



EMANTZIPAZIOA ZAPUZTUKO DELA AURREIKUSTEA								
Guztira	Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
45	44	45	46	53	34	41	46	45

9. AMATASUN ETA AITATASUN ATZERATUAREN INDIZEA


Seme-alabarik ez duten pertsonen artean, seme-alabak izatea gustatuko litzaiekeela, baina nahi duten adinean ez dituztela izango uste duten gazteen ehunekoa gazte guztiekiko.



AMATASUN ETA AITATASUN ATZERATUAREN INDIZEA								
Guztira	Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
31	32	29	22	36	34	30	32	29

10. ETORKIZUNAREKIKO KONFIANTZA INDIZEA

Bost urteko epean norberaren, gazteen eta Euskadiren egoeren bilakaerari buruzko aurreikuspenen batez besteko puntuazioa, 0tik 100era bitarteko eskalan.



ETORKIZUNAREKIKO KONFIANTZA INDIZEA								
Guztira	Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
53	55	52	56	54	51	52	54	53

EMAITZEN IRAKURKETA

Gazteen aurreikuspenei buruzko Aurrera Begira inkestak 2013tik urtero jasotzen du Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen bizi duten egungo egoerari eta etorkizuneko aurreikuspenei buruz egiten duten balorazioa.

2.727 gaztek erantzun zioten 2025eko abenduan zehar Haur, Nerabe eta Gazteen Euskal Behatokiaren galdetegiari. Erantzunetatik abiatuta, 10 adierazle eraikitzen dira, honako hauek neurtzen dituztenak: norberaren ongizatea, lan- eta emantzipazio-aurreikuspenak, etorkizuneko amatasunaren eta aitatasunaren aurreko ikuspegia, eta, azkenik, etorkizunarekiko konfiantza.

1. Egoeraren balorazio indizea

Adierazle honek inkestatutako pertsonen beren egoera pertsonalari, gazteriaren egoerari eta Euskadiren egoerari buruz egiten dituzten balorazioak batzen ditu, eta hiru dimentsio horiei emandako puntuazioen batez besteko gisa kalkulatu da.

2025ean, egoeraren balorazio indizea 100etik 65 puntutan kokatzen da, aurreko urtean baino bi puntu gutxiagorekin eta 2023koaren balio berdinarekin. Pandemiaren aurreko urteetan goranzko joera izan ondoren, osasun larrialdia bat-bateko beherakada eragin zuen: 2019an 70 puntu izatetik 2022an 62 izatera. Bi urtez jarraian gora egin bazuen ere, 2025eko datuak geldialdia suposatzen du.

Osagaiei erreparatuz gero, egoera pertsonala da positiboena (73/100). Euskadiko egoera 64/100 izatera iritsi da, eta gazteen egoera kolektibo gisa 58/100 izatera, batez bestekoa nabarmen murriztuz. Balorazio pertsonal, kolektibo eta ingurunearen arteko diferentzia hori egonkor mantentzen da seriean zehar.

Adinari dagokionez, 15 eta 19 urte bitarteko taldea da egungo egoera ondoen baloratzen duena (68/100) eta hiru dimentsioetan aurkeztzen du positibotasun handiagoa.

2. Norberaren ongizate indizea

Indize honek sakonago aztertzen du gazteek sentitzen duten ongizate-maila; izan ere, gazteek beren bizitzako hamaika alderdiri buruz duten gogobetetzearen batez bestekoa erakusten du. Hauek dira 11 alderdi horiek: lan-egoera edo lan-aurreikuspenak, ikasketak edo lortutako prestakuntza-maila, familia, astialdia, lagunak, harreman sentimentalak edota sexualak, osasun fisikoa, osasun mentala, itxura fisikoa, diru-eskuragarritasuna eta emantzipazioari lotutako egoera (beren kontura edo gurasoekin bizitzeagatik).

2025ean, norberaren ongizate indizea 100etik 73 puntura iritsi da, aurreko urtean baino puntu bat altuagoa. Egoeraren balorazio indizearekin gertatu bezala, pandemiak beherakada nabarmena eragin zuen; 2022an hondoa jo ondoren, adierazleak goranzko joerari eusten dio, nahiz eta oraindik 2019ko balioaren azpitik dagoen (78/100 izan zen orduan).

Aurreko urtearekin alderatuta, puntuazioak alderdi guztietan egin du hobera, hirutan izan ezik: familian eta itxura fisikoan (puntuazioa errepikatu dute) eta harreman sentimental edota sexualetan (puntu bat jaitsi da). Alderdi guztien artean, norberaren osasun mentolarekiko gogobetetasunaren gorakada nabarmentzen da, goranzko joerarekin jarraitu eta 100etik 74 puntura iritsi baita. puntuazio hori, 2023an egindako lehenengo neurketan baino lau puntu altuagoa da.

3. Bizitzaren alderdien balantzea

Bizitzaren alderdien balantzeak gazteek aipatutako hamaika esparruez sentitutako gogobetetasuna eta ematen dieten garrantzia alderatzen ditu, eta bien arteko aldea adierazten du (gogobetetasuna ken garrantzia).

Balantzearen emaitzak aztertzen hasi aurretik, gazteriak 2025ean garrantzitsuentzat jotzen dituen arloak adieraztea komeni da. Osasun mentala eta familia daude lehen postuan, biak 100etik 89 punturekin. Osasun fisikoa, lagunak, ikasketak, dirua eta astialdia datoz ondoren, 87 eta 82 puntu bitarteko garrantziarekin. Gainerako alderdiei emandako garrantziak 80 puntutik behera daude.

Balantzeari dagokionez, 2024an gertatu bezala, eskuragarri duten diruak du 2025eko emaitzarik negatiboena, garrantziaren eta gogobetetzearen arteko aldea -19 puntukoa izanik. Desfase horren arrazoia gazteek arlo horretan duten gogobetetze-maila txikia da. Bigarren arlo defizitarioena osasun mentala da: gogobetetasun nahiko handia izan arren (74/100), esleitutako garrantzia handiak (89/100) -15 puntuko arrakala sortzen du. Alde horrek hobera egin du aurreko bi urteekiko (-17tik -15era), gogobetetasunaren gorakadari esker. Osasun fisikoak, astialdiak eta lanak ere balantze negatiboak erakusten dituzte: -11 puntu 2025ean. Gainerako eremuetan, garrantziaren eta gogobetetasunaren arteko diferentziak 10 puntutik beherakoak dira.

Sexuaren eta adinaren arabera alde nabarmenak daude: emakumeek eta 25 eta 29 urte bitartekoek balantze negatiboagoak dituzte aipatutako alderdietan. Emantzipazioa da, arlo guztien artean, gogobetetasunak garrantzia gaintitzen duen arlo bakarra batez bestekoari erreparatuz gero. Hala ere, adinaren arabera patroia oso heterogeneoa da: 15 eta 19 urte bitartekoen taldeak +22 puntuko balantze positiboa du, 20 eta 24 urte bitartekoena 0 puntukoa da, eta 25 eta 29 urte bitartekoenak balantze negatiboa du, -14 puntukoa. Azalpena erraza da: zenbat eta adin txikiagoa izan, orduan eta garrantzia gutxiago ematen zaio emantzipatzeari, eta gurasoekin bizitzea gogobetegarriagoa da; adinean aurrera egin ahala, emantzipazioaren garrantzia handitu egiten da, eta hori lortzeko zailtasunek gogobetetasuna murrizten dute.

4. Lana galtzeko edo baldintzak okertzeko arriskua

Adierazle honek bi osagai konbinatzen ditu. Alde batetik, lana galtzeko arriskua, hau da, urtebeteko epean enplegua galtzea oso edo aski litekeena dela uste duten langile gazteen ehunekoa. Bestetik, lan-baldintzak okertzeko arriskua, hau da, lana galtzeko probabilitatea gutxi edo batere ez izan arren, epe horretan lan-baldintzek okerrera egingo dutela oso edo nahiko litekeena dela uste duten gazte landunen ehunekoa.

2025ean, adierazlea % 41koa da, aurreko urteko zifra errepikatuz. Osagaien araberako banaketak erakusten du enplegua galtzeko arriskua jaitsi egin dela eta baldintzak okertzeko arriskua handitu egin dela, nahiz eta aldaketak oso txikiak izan.

Sexuaren eta adinaren araberako desberdintasunak daude. Emakumeen artean eta talde gazteenean (20-24 urtekoena; 15-19 urtekoak ez dira kontuan hartu, estimazio sendoak egiteko adin horretako behar beste gazte ez daudelako lanean) lana galtzeko edo baldintzak okertzeko arriskua handiagoa da (% 46 eta % 45, hurrenez hurren). Datu hau talde hauek enplegua galtzeko hautematen duten arriskuan oinarritzen da: emakumeen % 29 (gizonen % 22aren aurrean), eta 20-24 urteko gazteen % 28 (25-29 urtekoen % 25aren aurrean). Patroi horiek lotura dute kolektibo horiek pairatzen duten behin-behinekotasun handiagorekin.

5. Lana aurkitzea aurreikustea

Adierazle honek langabezian dauden eta urtebeteko epean lana aurkitzea espero duten gazteen ehunekoa neurtzen du.

2025ean, langabezian dauden gazteen % 79k adierazi du konfiantza hori, pandemia osteko aldiko baliorik handiena. Honek lan-merkatu dinamikoa hautematen dutela iradokitzen du. Hala ere, emaitza horiek kontu handiz interpretatu behar dira, inkestatutako gazte langabeen lagina oso txikia baita.

6. Prestakuntzari lotutako lana izatea aurreikustea

Adierazle honek ikasketak amaitzean beren prestakuntzarekin bat datorren enplegua aurkitzea espero duten ikasle gazteen ehunekoa neurtzen du, ikasle guztiekiko. 2025ean % 82 da, ikerketa hasi zenetik izan den zifrarik altuena, aurreko urtekoarekin berdinduta.

7. Derrigorrez emigratu beharra aurreikustea

Derrigorrez emigratu beharra aurreikustearen adierazleak etorkizunean, nahi gabe, atzerrira lan egitera emigratu beharko dutela uste duten gazteen ehunekoa neurtzen du.

2018tik gertatzen ari den bezala, adierazlea oso zifra baxuetan mantentzen da, 2025ean % 9 izanik. Izan ere, atzerrira lan egitera joateko aukera dutela uste duten lau gaztetik hiruk benetan nahi dute joan. Izan ere, % 37k lan egiteko emigratzeko aukera oso edo nahiko probablea dela uste du, eta % 28k, gainera, kanpora joatea asko edo nahikoa gustatuko litzaiokeela dio.

Adinaren araberako ezberdintasunak nabarmenak dira emigratzeko aurreikuspenetan, baina ez hainbeste emigrazio behartuan, hain zuzen ere aurreikuspen handiena duten taldeek ere desio handiagoa erakusten dutelako. 15-19 urtekoen kasua da hori: % 45ek uste du oso edo nahiko probablea dela etorkizunean atzerrian lan egitea, eta % 38k, gainera, adierazi du asko gustatuko litzaiokeela. Adinean aurrera egin ahala, jaitsi egiten da espektatiba eta desioen arteko bateratzea: % 29koa da 20-24 urte bitartean, eta % 16koa 25-29 urte bitartean.

8. Emantzipazioa zapuztuko dela aurreikustea

Adierazle honek emantzipazioarekin lotutako bi egoera posible gehitzen ditu. Alde batetik, gaur egun familiaren etxean bizi diren, eta emantzipatu nahi duten arren, urtebeteko epean emantzipatu ezin izango direla uste duten gazteen ehunekoak jasotzen du. Bestetik, emantzipatuta bizi diren baina nahi gabe familiaren etxera itzuli beharko dutela uste dutenen ehunekoak.

2025ean, adierazlearen goranzko joera berresten da, eta % 45ean kokatzen da. Gehienak (% 43) gurasoekin bizi diren eta emantzipatu nahi duten gazteak dira, baina epe laburrean ez dute hori gertatzeko aukerarik ikusten. Aldiz, % 2 etxetik kanpo bizi diren eta, nahiz eta nahi ez izan, familiaren etxera itzuli beharko dutela uste duten gazteak dira.

Adinaren araberrako desberdintasunak nabarmenak dira. Zifrarik altuena 20-24 urte bitartekoen artean ematen da (% 53), eta baxuena 25-29 urtekoen artean (% 34).

9. Amatasun eta aitatasun atzeratuaren indizea

Amatasun eta aitatasun atzeratuaren indizeak egoera honetan dagoen gazteen ehunekoak adierazten du: orain ez dute seme-alabarik, baina etorkizunean ama edo aita izatea asko edo nahikoa gustatuko litzaieke eta ez dute uste egokitzat jotzen duten adinean izango direnik. Ehunekoak gazte guztiekiko kalkulatu da.

2025ean, adierazlea % 31ra iritsi da, 2024koaren antzeko balioa (% 32). Biak dira seriearen daturik altuenak. Datu orokorra 15-19 urteko adin-taldearen zifrak ahultzen du (% 22), gainerako bi adin-taldeena baino pixka bat txikiagoa. Gainera, seme-alabarik ez duten gazteen % 74k adierazi du etorkizunean seme-alabak izatea gustatuko litzaiokeela, 2018tik izan den ehunekorik altuena. Desio hori adierazten dutenen artean, 30,2 urterekin izan nahiko lukete lehen seme-alaba. Balio hori 2015etik egonkor mantentzen da.

10. Etorkizunarekiko konfiantza indizea

Etorkizuneko konfiantza indizeak egoeraren balorazio indizean erabilitako hiru dimentsioak hartzen ditu berriro (egoera pertsonala, gazteena eta Euskadirena), baina bost urtera aurreikusitako bilakaera ebaluatuz. 2025ean, 53 puntu izatera jaitzi da, serieko baliorik txikiena.

Aztertutako hiru dimentsioetatik, gazteek kolektibo gisa duten egoerak eta Euskadirenak berriz ere galga jartzen diote etorkizunean hobera egiteko konfiantzari. Hala ere, 2024arekin alderatuta, gehien jaisten diren osagaiak egoera pertsonalari eta gazteen egoerari dagozkionak dira.

ONDORIOAK

Azken inkesta honek eskaintzen duen panorama mistoa da. Alde batetik, ongizate pertsonalak pandemiaren ondoren indarberritzen jarraitzen du; bestetik, egoeraren balorazioak eta etorkizunarekiko konfiantzak zertxobait behera egiten dute.

Egoeraren balorazioan, egoera pertsonalaren pertzepzioak Euskadirena eta gazteak kolektibo gisa hartzen dituenarena baino askoz hobea izaten jarraitzen du. Norberarena eta kolektiboarena denaren arteko arrakala egonkor mantentzen da. Gazteenek (15-19 urte) begirada positiboagoa izateko joera dute.

Norberaren ongizate indizeak goranzko joera finkatu du. Hobekuntza ia orokorra da ebaluatutako esparru guztietan aurreko urtekoarekin konparatuz gero.

Bizitzaren alderdien balantzean, diruak bereganatzen du gogobetetasunaren eta garrantziaren arteko alderik handiena, eta, ondoren, osasun mentalak; osasun fisikoak, astialdiak eta enpleguak arrakala txikiagoak erakusten dituzte. Balantzerik negatiboena emakumeen artean eta aztertutako adin tartean nagusienak direnen artean ematen dira. Emantzipazioa da oro har saldo positiboa duen esparru bakarra, baina adinaren arabera oso desberdina da.

Enpleguari dagokionez, galtzeko edo baldintzak okertzeko arrisku konbinatua altu eta egonkor mantentzen da: enplegua galtzeko arriskuaren pertzepzioa zertxobait jaitsi da, baina baldintzak okertzearena handitu da. Arrisku-pertzepzioa handiagoa da emakumeen artean eta lan-ibilbidearen hasierako etapan daudenen artean. Hala ere, langabezian dauden gazteen artean enplegua aurkitzeko aurreikuspena oso handia da, eta ikasleek ikasketak amaitzean beren prestakuntzarekin bat datorren enplegua lortzeko konfiantza altua mantentzen dute.

Derrigorrez emigratu beharraren aurreikuspena oso maila baxuetan mantentzen da: etorkizunean atzerrian lan egitea aurreikusten dutenen artean, zati handi batek hala nahi du, bereziki gazteenek.

Aitzitik, emantzipazioa zapuztuko zaielaren aurreikuspena zertxobait handitu da. Kolektibo ezkorrena 20-24 urte dituztenena da.

Amatasun eta aitatasun atzeratuari dagokionez, adierazleak serieko ehuneko handienetako bat erakusten du. Horrek gazteek nahi duten adinean seme-alabak izatearen aurrean duten ezkortasuna adierazten du. Nolanahi ere, seme-alabak izateko nahia neurtzen hasi zenetik punturik gorenera iritsi da.

Azkenik, egoerak bost urtera izango duen bilakaerarekiko konfiantzak behera egin du. Arlo pertsonalean etorkizunean hobera egiteko aurreikuspena mantentzen dute, baina zuhurragoak dira Euskadiren eta, oro har, euskal gazteriaren etorkizunari dagokionez.

I. ERANSKINA: NOLA KALKULATZEN DIREN ADIERAZLEAK

1. Egoeraren Balorazio Indizea (EBI)

Adierazlea hiru galderatan oinarritzen da. Norberaren egoera pertsonalari (A), Euskadiko gazteen egungo egoerari (B) eta Euskadiren egungo egoerari (C) Otik 10era bitarteko puntuazioa ematea eskatu zaie inkestatuei.

Adierazlea kalkulatzeko, alderdi bakoitzari emandako puntuazioen batez besteko aritmetikoa egin da, eta emaitza 10ez biderkatu da, Otik 100era doan eskalara egokitzeke.

$$EBI = [(A + B + C) / 3] \times 10$$

2. Norberaren Ongizate Indizea (NOI)

Adierazlea galdera bakarrean oinarritzen da. Galdera horretan euren bizitzaren hamar alderdietan duten poztasun-mailari Otik 10era bitarteko puntuazioa ematea eskatu zaie inkestatuei. Hauexek dira hamar alderdi horiek: beren lan-egoera edo lan-aurreikuspenak (A), beren ikasketak edo prestakuntza maila (B), beren familiarekin edo beren kontura bizitzea, norberaren kasuaren arabera (C), beren familia (D), beren astialdia (E), beren lagunak (F), beren harreman sentimental edota sexualak (G), beren osasun fisikoa (H), beren osasun mentala (I), hilean duten dirua (J) eta beren itxura fisikoa (K).

Adierazlea kalkulatzeko, alderdi bakoitzari emandako puntuazioen batez besteko aritmetikoa egin da, eta emaitza 10ez biderkatu da, Otik 100era doan eskalara egokitzeke.

$$NOI = [(A + B + C + D + E + F + G + H + I + J + K) / 11] \times 10$$

3. Bizitzaren Alderdien Balantzea (BAB)

Balantzea bi galdera oinarri hartuta egiten da. Lehenengo galderan inkestatutako pertsonari eskatzen zaie adierazteko 0 eta 10 arteko eskala batean zenbat punturekin neurtzen duten beren bizitzako zenbait alderdiri emandako garrantzia (lanari, ikasketa edo formazioari, familiari, osasun fisikoari, osasun mentalari, itxura fisikoari, harreman sentimental edota sexualei, astialdiari, lagunei, diruari eta emantzipatzeari, hau da, beren kontura bizitzeari). Bigarren galderan eskatzen zaie adierazteko alderdi horiekiko (beren lan-egoera edo lanarekiko aurreikuspenak, beren ikasketak edo formazio maila, beren familia, beren osasun fisikoa, osasun mentala, beren itxura fisikoa, beren harreman sentimental edota sexualak, beren astialdia, beren lagunak, hilean duten dirua eta beren familiarekin edo beren kontura bizitzea, norberaren kasuaren arabera) duten gogobetetasun pertsonala edo poztasun maila, 0-10 eskala berean neurtuta.

Ondoren balio guztiak 10ez biderkatzen dira, 0-100 eskalara egokitzeke, eta, ondoren, kenketa egiten da, alderdi bakoitzarekiko gogobetetasuna ken emandako garrantzia, dagoen arrakala eta balantzea positiboa edo negatiboa den zehazteko.

4. Lana Galtzeko edo Baldintzak Okertzeko Arriskua (LGBOA)

Gazte landunei egindako bi galderatan oinarrituta eratzen da adierazlea. Lehenengoan (A), inkestatutako pertsonei eskatzen zaie adierazteko zer neurritan uste duten litekeena dela urtebeteko epean daukaten enplegua galtzea. Bigarrenean (B), daukaten enplegua ez dutela galduko uste dutenei galdetzen zaie adierazteko zer neurritan uste duten litekeena dela urtebeteko epean beren lan-baldintzak okertzea.

Adierazlea kalkulatzeko, batera kontuan hartzen dira, alde batetik, gazte landunen ehuneko zenbatek uste duten litekeena dela beren enplegua galtzea urtebeteko epean eta, bestetik, lana galtzeko arriskurik aurreikusten ez duten arren, zenbatek uste duten litekeena dela daukaten lan egoera okertzea.

$LGBOA = (A = \text{Segur aski bai} + \text{Agian bai}) + [(A = \text{Ez duzu uste} + \text{Seguruenik ez}) \& (B = \text{Segur aski bai} + \text{Agian bai})]$

5. Lana Aurkitzea Aurreikustea (LAA)

Adierazlea galdera batean oinarritzen da (A), eta bertan langabeei ondokoa eskatu zaie: adieraz dezatela zein neurritan uste duten probablea dela (segur aski bai, agian bai, ez duzu uste, seguruenik ez) urtebeteko epean enplegua aurkitzea.

Adierazlea kalkulatzeko, urtebeteko epean segur aski edo agian enplegua aurkituko dutela uste dutenen ehunekoak hartu dira kontuan.

$LAA = (A = \text{Segur aski bai edo Agian bai})$

6. Prestakuntzari Lotutako Lana Izatea Aurreikustea (PLLIA)

Adierazlea galdera bakarrean oinarritzen da (A), eta bertan ikasleei galdetu zaie zein neurritan uste duten probablea dela (segur aski bai, agian bai, ez duzu uste, seguruenik ez) euren prestakuntzarekin lotutako enplegua aurkitzea, ikasketak amaitutakoan.

Adierazlea kalkulatzeko, prestakuntzari lotutako enplegua segur aski edo agian lortuko dutela uste dutenen ehunekoak hartu dira kontuan.

$PLLIA = (A = \text{Segur aski bai edo Agian bai})$

7. Derrigorrez Emigratu Beharra Aurreikustea (DEBA)

Gazte guztiei eginiko bi galderatan oinarrituta dago. Lehen galderan (A) inkestatuei galdetu zaie zein neurritan uste duten probablea dela (segur aski bai, agian bai, ez duzu uste, seguruenik ez) etorkizunean atzerrira lan egitera joan behar izatea. Bigarrenean (B) pertsona berebetei galdetu zaie zein neurritan joan nahi izango luketen atzerrira lanera (asko, nahikoa, gutxi, batere ez).

Adierazlea kalkulatzeko, segur aski edo agian atzerrira joan beharko dutela baina joateko gogo gutxi edo batere ez dutela dioten lagunak bakarrik hartu dira kontuan.

DEBA = (A = Segur aski bai edo Agian bai & B = Gogo gutxi edo Batere ez)

8. Emantzipazioa Zapuztuko dela Aurreikustea (EZA)

Adierazlea lau galderatan oinarritzen da. Lehen bi galderak gazte ez emantzipatuei egin zaizkie; hirugarrena eta laugarrena, aldiz, gazte emantzipatuei.

Lehen galderan (A) gazte ez emantzipatuei eskatu zaie adieraz dezatela zein neurritan uste duten probablea dela (segur aski bai, agian bai, ez duzu uste, seguruenik ez) urtebetean emantzipatzea, eta bigarrenean (B), zein neurritan nahi duten emantzipatu (asko, nahikoa, gutxi, batere ez). Hirugarren galderan (C), gazte emantzipatuei eskatu zaie adieraz dezatela zein neurritan uste duten probablea dela (segur aski bai, agian bai, ez duzu uste, seguruenik ez) urtebetean gurasoekin bizitzera itzuli behar izatea, eta laugarrenean (D) zein neurritan (asko, nahikoa, gutxi, batere ez) nahi duten gurasoekin bizitzera bueltatu.

Adierazlea kalkulatzeko, kontuan hartu da, emantzipatu gabeko gazteen artean, urtebeteko epean euren kabuz bizitzea ez dela probablea uste dutenen ehunekoa, nahiz eta emantzipatzeko gogoia izan. Era berean, kontuan hartu da, emantzipatutako gazteen artean, urtebeteko epean segur aski edo agian gurasoen etxera bueltatu behar izango dutenen ehunekoa, horretarako gogo gutxi edo batere ez izan arren.

EZA = (A = Ez duzu uste edo Seguruenik ez & B = Asko edo Nahikoa) +
(C = Segur aski bai edo Agian bai & D = Gutxi edo Batere ez)

9. Amatasun eta Aitatasun Atzeratuaren Indizea (AAAI)

Adierazlea hiru galderatan oinarrituta egiten da: lehenengoa seme-alabarik dituzten ala ez da, bigarrena etorkizunean seme-alabak izateko nahiari buruzkoa da, eta hirugarrena nahi duten adinarekin hori gertatzeko probabilitateari buruzkoa.

Adierazlea kalkulatzeko, hurrengo baldintzak hartzen dira kontuan: seme-alabarik ez dute (A), etorkizunean seme-alabak izatea gustatuko litzaieke (B), baina nahi den adinarekin hori gertatzea oso edo nahiko gertagarritzat ez dute jotzen (C).

AAAI = (A = Ez du seme-alabarik & B = Asko edo Nahiko & C = Gutxi edo batere aukerarik ez)

10. Etorkizunarekiko Konfiantza Indizea (EKI)

